

0375 ZB.KO DEKRETUA

Oiartzun, 2020ko apirilaren 14a.

10/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 29koa, oinarrizko zerbitzuak ematen ez dituzten besteren konturako langileentzako ordaindutako baimen berreskuragarria arautzen du, COVID-19 delakoaren aurkako borrokaren testuinguruan biztanleriaren mugikortasuna murrizteko.

Lehen xedapen gehigarriak gaitzen zituen toki-erakundeak urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren aplikazio-eremuan dauden langile publikoen zerbitzu-ematea arautzeko beharrezkoak diren jarraibideak eta ebazpenak emateko, funtsezkotzat jotzen diren zerbitzu publikoen funtzionamenduari eusteko.

Xedapen hori egikaritze aldera martxoaren 30eko 360/2020 Alkate Dekretuaren bidez funtsezkotzat jotzen diren udal zerbitzuak finkatu eta zerbitzu publikoen funtzionamendua bermatzeko jarraibideak onartu ziren, neurri guzti horiek biztanleriaren mugikortasuna erabat murrizteko testuinguru baterako egokiak.

Aipatu inguruabar hori aldatu da, eta horren adierazle da Diputatuen Kongresuaren apirilaren 9ko Ebazpena, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak aitortutako alarma-egoera luzatzeko baimen-akordioa argitaratzeko agintzen duena, eta lantokira joatea lan, lanbide edo enpresa arloko prestazioa egitera berriro ahalbideratzen duena.

Honenbestez, aipatu Alkatearen ebazpenaren bidez hartutako neurriak egokitu behar dira egoera berriari.

Beraz, ebazpen honen xedea da 2020ko apirilaren 14tik aurrera zerbitzu publikoen funtzionamendua bermatzeko jarraibideak zehaztea, eta bestetik, COVID-19 prebenitzeko jarduteko protokoloaren eguneraketa onestea.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 6. artikulua, COVID-19 delakoak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaritzen duenak, ezartzen du autonomia-erkidegoek eta toki-erakundeek beren zerbitzuen ohiko kudeaketarako eskumena dutela.

Toki-araubidearen oinarriak arautzen duen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.h) artikulua ematen dizkidan eskumenetaz baliatuz, honen bitartez, ondorengoa,

EBAZTEN DUT

Lehena.- Honako Udal zerbitzu hauek bermatzea:

- Udaltzaingoa.
- Gizarte Zerbitzuak.
- Idazkaritza.
- Kontuhartzailletza.
- Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak.
- Mendi, Ur eta Ingurumena.
- Kultura eta Euskara.
- Gazteria eta Kirola.
- Feminismoa.
- Informatika-zerbitzuak.
- Larrialdiak.
- Kale garbiketa eta zaborra bilketa.
- Lan osasuna eta laneko arriskuen prebentzioa.

Bigarrena.- Onartzea Udal zerbitzu publikoen funtzionamendua bermatzeko honako jarraibide hauek:

1.- Herritarrei arreta emateko zerbitzua telefonikoa izaten jarraituko du.

Halaber, Udalak ondorengo telefono bidezko arreta emango duE:

- Harrera orokorra: 943 49 01 42
- Gizarte Zerbitzuak: 943 49 05 52
- Udaltzaingoa: 943 49 33 11
- Hirigintza: 943 49 03 77

2.- Barne antolaketari dagokionez, telelanean ari diren langile batzuk egoera berean mantenduko dira (batzuk txandakatuz), eta Udalak honako zerbitzuak bermatuko ditu:

SAILA	LANPOSTUA
Idazkaritza	Idazkaria: presentziala/telelana Administraria: bi lagun presentziala Bi goi mailako teknikari: telelana/presentziala
Kontuhartzailletza	Kontuhartzailea: presentziala Administraria: hiru lagunek presentziala
Informatika	Informatikaria: telelana/presentziala
Hirigintza, Obra	Teknikaria: lagun bat presentziala.

eta Zerbitzuak	Administraria: lagun bat presentziala Uretako arduraduna: telelana/presentziala Uretako langilea: bi lagun presentziala Obra eta zerbitzuen arduraduna: presentziala Brigadako langileak: presentziala (antolaketa neurriak hartuta) Tekniko laguntzaile elektrikaria: telelana/presentziala Elektrikaria: lagun bat presentziala Garbitzailea: presentziala
Mendi, Ur eta Ingurumena	Teknikaria: telelana/presentziala Administraria: telelana/presentziala
Gizarte Zerbitzuak	Gizarte langilea: bi lagun presentziala Administraria: bi lagun presentziala Etxez etxeko laguntzaileak: presentziala
Udaltzaingoa	Udaltzaingo osoa: presentziala
Euskera eta Kultura	Euskara teknikaria: telelana. Kultura teknikaria: telelana. Liburuzainak: telelana/presentziala.
Feminismoa	Telelana
Gazteria eta Kirola	Telelana

3.- Udalaren funtzionamendua: batzordeak modu telematikoan burutzea lehenetsiko da.

4.- Martxoaren 30eko 360/2020 Alkate Dekretuaren bidez onartutako kanpoko enpresekin kontrataturiko zerbitzu publikoen antolaketa mantenduko da.

Hirugarrena.- Onestea COVID-19 prebenitzeko jarduteko protokoloaren eguneraketa, eta Udalak berea egitea etxez etxeko zerbitzurako Osasun Sailaren eta Osakidetzaren gomendioak. Protokolo hauek I. eranskinean jaso dira.

Laugarrena.- Dekretu honek sinatzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta indarrean jarraituko du alarma egoerak irauten duen bitartean, baldin eta ebazpen honetan ezarritakoarekin bateraezinak diren beste neurri batzuk ematen ez badira.

Bosgarrena.- Ebazpen hau argitaratzea Udaleko iragarki-oholean eta udalaren web orrian, eta langileei honen berri ematea.

Jexux Leonet Elizegi Alkate-Lehendakari Jn.k agintzen eta sinatzen du, eta neuk idazkari naizenez, ziurtatzen.